


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

PRACTICUM I

Plan Orokorra

Praktika Dekanordetza
2016ko apirila

PRACTICUM I PLAN OROKORRA

EDUKIA

1. IKASGAIARI TESTUINGURUA EMATEA.....	4
1.1. Practicum I-en ingurua	5
2. HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ARAUDI OROKORRA	6
2.1. Azalpen orokorrak	6
2.2. Baliokidetzeak eta exentzioak.....	6
2.3. Plaza eskaintza eta esleipena	7
2.4. Ikasleek ikastetxea aukeratzea.....	8
2.5. Ikasle kopurua gelako.....	8
2.6. Tutore lana	9
2.7. Ikasleak.....	9
2.8. Parte hartzen duten eragileen betekizunak.....	9
2.8.1. <i>Praktiketako Dekanordetza</i>	9
2.8.2. <i>Praktika Batzordea</i>	10
2.8.3. <i>Hezkuntza Ordezkaritza</i>	10
2.8.4. <i>Ikastetxeko koordinatzailea</i>	11
2.8.5. <i>Ikastetxeko maisu-maistra tutorea</i>	11
2.8.6. <i>Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea</i>	12
2.8.7. <i>Departamentuetako zuzendariak</i>	12
2.8.8. <i>Titulazioko koordinatzaileak</i>	13
2.8.9. <i>Ikasleak</i>	13
3. PRACTICUM I-EN HELBURUAK.....	15
3.1. Ikastetxea eta bere ingurua	15
3.2. Gela	15
3.3. Mintegiak	16
3.4. Memoria.....	16
4. GAITASUNAK	17
4.1. Haur hezkuntzako practicumeko gaitasunak	17
4.1.1. <i>Practicumaren gaitasunak, esleitzen zaion gradu eta irakasgaiari</i>	18
4.1.2. <i>Haur Hezkuntzako Practicum I-en gaitasunen eta bigarren mailakoen arteko harremana</i>	19
4.2. Lehen hezkuntzako practicumaren gaitasunak.....	20

4.2.1. <i>Practicumaren gaitasunak, esleitzen zaion gradu eta irakasgaian</i>	21
4.2.2. <i>Lehen ikasturteko gaitasunen eta lehen hezkuntzako practicum I-en arteko lotura</i>	22
5. PRAKTIKA ESPERIENTZIAREN EDUKIA ETA HURA BEHATZEKO TRESNAK	23
5.1. Praktika esperientziaren edukia	23
5.1.1. <i>Practicum I-en edukiak</i>	23
5.2. Praktika esperientziaren ezaugarriak	24
5.3. Garapen profesional trebea.	24
5.4. Esperientzia ikasketaren zikloa	25
5.5. Esperientzia ikaskuntzaren edukia practicum I-ean.....	25
5.6. Hausnarketa esperientzia haur hezkuntzan	25
5.7. Hausnarketa esperientzia lehen hezkuntzan	28
5.8. Behaketarako tresnak. Erremintak eta baliabideak	30
5.8.1. <i>Hausnartze behaketa.</i>	30
5.8.2. <i>Egunkaria</i>	32
5.8.3. <i>Portafolioa</i>	32
5.8.4. <i>Elkarrizketa</i>	33
6. EBALUAZIOA	34
6.1. Practicum I: praktikaldia balioesteko orria	34
6.2. Practicum I: praktikaldia balioesteko orria	37
7. ANTOLAKETA	40
7.1. Kronograma.....	40
7.2. Aurretiko Prestakuntza	40
7.3. Practicumeko kredituen banaketa	41
8. BIBLIOGRAFIA	42

1. IKASGAIARI TESTUINGURUA EMATEA

Unibertsitate Espainiarra Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremura (EGMHE) egokitzeak aldaketa ekarri du unibertsitateko ikasketetan, eta hori nabarmendu egiten da egituran (lau urteko graduko tituluak), eta agertu behar du, baita ere, erabiltzen diren metodologietan.

Antolamendu berriak graduko bi titulutan bateratu ditu aurreko espezialitateak: Haur Hezkuntzako Maisu-maistra eta Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra tituluetan hain zuzen.

Titulu berri hauetan *Irakaskuntza Praktikek* oraindik ere garrantzi handia dute eta teoriaren eta geletako bizitzaren arteko lotura egiteko apartak dira.

Practicuma jarduera multzoa da, zenbait erakundek Hezkuntza eta Kirol Fakultatearekin lan egiten dute, ikasleak lanbidearekin harremanetan jartzeko. Ikasleak ikastetxeetan murgiltzea da xedea, zuzenean ezagut ditzaten, teoria eta praktika uztar ditzaten, eta jarduteko arlo guztietan gaitasunak har ditzaten.

Beharrezkoa da ikasleek modu praktikoan lanbidearen eskakizunak ezagutzeko aukera izatea, eta hezitzaile izateak dakartzan arazo pertsonal eta sozialei erantzuteko gai izatea.

Maisu-maistrak horrelakoa behar luke: lana egiten duen ingurua aztertu eta hura planifikatzeko gai den profesionala; ikasle guztientzat ikasgai bat ulergarri egiteko gai dena eskakizun indibidualak kontuan hartuz; eta Ikastetxeko proiektu baten barruan talde baten baitan lanean dakiena.

Aurreko ideiak kontuan harturik Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikasketa Planetan datorren *practicuma* planifikatu da. Hiru egonaldi luze programatu dira ikastetxeetan; bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean egingo dira, eta hala *Practicuma* funtsezkoa izango da eta prestakuntza ibilbidean sartua, ikaskuntza, esangura eta kontrasterako bide.

Ikasturte guztietan txandakatuko da ikastetxeetako lana eta unibertsitatekoa, eta hala, hausnarketak eta egintzak elkarri lagunduko diote.

Practicum Modulua bi gaitan antolatzen da:

- Eskolako praktikak (38 kreditu ECTS)
- Gradu amaierako lana (12 kreditu ECTS)

Practicuma Haur Hezkuntzako bi zikloetan eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan egingo da. Gaia hiru irakasgaitan banatuko da Graduan zehar (*Practicum I*, *Practicum II* eta *Practicum III*). Nahitaezko baldintza da aurreko *practicuma* gainditua izatea (halakorik baldin bada) irakasgai honetan matrikula egin ahal izateko.

Practicumean geroz eta denbora, inplikazio eta esku-hartze maila handiagoa izango dute ikasleek, eskolako hainbat egoeratan eta gelako egoera didaktikoetan moldatzen.

Prozesu guztian zehar hausnarketa bat egingo da hezkuntza praktikari buruz, eta zentzua emango zaio sostengatzen duten eta bilakaera zuzen dezaketen ezagupen teorikoetatik.

Plan honekin etorkizuneko maisu-maistrak hau lortzea nahi da:

1. Eskola erakundearen egunerokora hurreratzea.
2. Benetako irakaskuntza ezagutzea, metodologia, antolamendu eta inguru aldaketekin, hainbat aldagai (pertsonal, didaktiko, sozial, instituzional...) atzemateko tresna eta metodoak praktikan jartzea.
3. Teoria eta praktika aurrez aurre jartzea.

Practicuma ez da unibertsitateko irakaslanetik at dagoen jarduera, izan ere, hausnarketa eta eztabaida gune ireki eta horizontalak behar ditu, bertan ikasle, eskoletako maisu-maistra tutoreek eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreek parte hartzeko. Hala, Practicum lankidetzaren prozesu bat da, unibertsitate irakasle, maisu-maistra eta ikasleen artekoa, hezkuntza hobetzera eta hiru kolektiboen lanbidea garatzera emana.

Ikuspuntu horiekin Praktiken Plana egin da, eta batasuna duen arren, fase bakoitzak helburu espezifiko bat betetzen du.

1.1. Practicum I-en ingurua

Practicum I ikasleek ikastetxe batekin lehen harremana izateko pentsatuta dago. *Praktika Plan* hau gida edo erreferentzia puntu bat da, eskolako jardunaren alderdirik esanguratsuenak aztertu eta hausnartzeko orduan kontuan hartzekoak.

Practicum honen *xede nagusia* ikasleek beren lanbide izango den horrekin lehen harremana izatea da, eta modu arretatsu sistematikoan behatu eta aztertzea eskolaren heziketa eta antolamendua, eta baita haren inguru soziala ere.

Ikastetxearekin duen lehen harreman honetan honako helburuak proposatzen dira:

- Aldatzen ari den hezkuntza erakundearen konplexutasuna aztertzea.
- Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleen bizimodua ezagutzea: lana, zailtasunak, alderdi pizgarriak eta gauza baikorrak.
- Inguruko gizartearen eta eskolaren arteko harremana aztertzea, eta baita eskola barruko gizarte harremanak ere.
- Heziketa esperientzia behar bezain luzea hartzea, hezkuntza komunitateko eragile guztiekin harremana izateko: ikasle, irakasle, familia,...
- Eskola eta gizarteko giroa sistematikoki behatzeko tresnak erabiltzea.
- Datuak jaso eta prestatzea, lehen mailako iturrietatik (elkarrizketak, behatze egunkaria,...) eta bigarren mailako iturrietatik (estatistikak, dokumentuen analisia...), eta interpretatzen jakitea, Practicumarekin lotutako beste irakasgai batzuen ezagupenen arabera.
- Eskolako bizipeneko azterketa prozesutik lortutako emaitzak formalki adieraztea.

2. HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ARAUDI OROKORRA

2.1. Azalpen orokorrak

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren arabera antolatzen dira praktikak, EHAA/2011n agertzen denez, eta ezarri beharreko *Graduko eta lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegiaren* arabera.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Praktika Dekanordetzak antolatu eta koordinatuko ditu praktikak ikastetxeekin lankidetzan.

Maisu-maistra tutoreei, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreei eta ikasleei aholku emateko, Praktiketako Dekanordetzak informazio dokumentu zehatz batzuk izango ditu Practicum bakoitzerako, bertan emango dira aholku nagusi batzuk, iritsi nahi diren helburuak, lan metodologiarik egokienak, garatu beharreko prestakuntza jarduerak eta zereginak, ebaluazio irizpideak, antolamendu alderdiak, ordutegiak, sartuta dauden jakintza arloak/departamentuak, eta praktikak egokitasunez egiteko behar den informazioa.

Edozein gorabeheratan ikasleek Dekanordetzara eta Praktika Batzordera jo dezakete.

Praktikak bukatu ostean, Unibertsitateak eta Hezkuntza Ordezkaritzak dagozkien ziurtagiriak egingo dituzte maisu-maistra tutoreentzat.

Praktiketako ikasleak inola ere ezin du ikastetxe, erakunde edo enpresetako plantillako irakasleen lanik egin, zeregin desberdinak eta/edo osagarriak izango ditu.

Praktika arautuak direnez gero, Eskolako Aseguruak automatikoki estaliko ditu.

2.2. Baliokidetzeak eta exentzioak

PRACTICUM I

1. ASIGNATURA OSOA (Practicum I) baliozkotuko da baldintza hauetan:
 - 1.a. Irakasle-ikasketetako Diploma izanez gero.
 - 1.b. Azken hiru urteetan Lehen Hezkuntzan edo Haur Hezkuntzan irakasle-eskarmentua izatea: urte erdi lanaldi osoan edo urtebete lanaldi erdian, gutxienez.
 - 1.c. Haur Hezkuntzako Graduan matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Goi-mailako Graduko Lanbide Prestakuntza egin duela eta Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari titulua lortu duela.
2. EGONALDIA BAKARRIK baliozkotuko da (eta beraz gainerako lana egin behar da) kasu honetan:

2.a. Practicum egin bitartean, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoan lanean arituz gero. Horrek ez du esan nahi irakasgaiaren gainerako betekizunak bete behar ez direnik.

PRACTICUM II

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotzen da honako kasu honetan.
 - 1.a. Irakasle-ikasketetako Diploma izanez gero.
 - 1.c. Haur Hezkuntzako Graduan matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Goi-mailako Graduko Lanbide Prestakuntza egin duela eta Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari titulua lortu duela.
2. EGONALDIA BAKARRIK baliozkotuko da:
 - 2.a. Ikaslea, arlo publikoan zein pribatuan, Haur Hezkuntzan, maistra-hezitzaile bezala, edo Lehen Hezkuntzan, maistra bezala, lan-jardun osoan ari bada matrikulatuta dagoen espezialitate berean. Horrek ez du esan nahi irakasgaiaren gainerako betekizunak bete behar ez direnik.

PRACTICUM III

1. IRAKASGAI OSOA baliozkotzen da honako kasu honetan.
 - 1.a. Ikasleak Irakasle Ikasketen Diplomatura badu, matrikulatu den espezialitatean.
 - 1.b. Heziketa Fisikoko minorrean matrikulatutako ikasleak egiaztatzen badu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduduna dela.
2. EGONALDIA baliozkotuko da soilik:
 - 2.a. Egiaztatzen badu praktikaldian haur-hezkuntzako edo lehen hezkuntzako irakasle gisa diharduela –irakaskuntza publikoan edo pribatuan–, matrikulatu den espezialitatean eta jardunaldi osoan. Horrek ez du inolaz ere esan nahi ikasgaiko beste eskakizunak bete behar ez dituenik (prestakuntza-ikastaroan egin beharreko lana, jarraipen-mintegiak eta amaierako txostena.

2.3. Plaza eskaintza eta esleipena

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak urtero eskainiko ditu modu bateratuan praktikarako ikastetxeak, eta hala titulazio bakoitzak nahiko leku izango ditu ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak argitaratu egingo ditu praktiketako ikastetxe lankideak, lankide diren ikastetxe eta erakundeen sare iraunkorreko kideak, adieraziz testuinguru jakin bakoitzean garatu beharreko departamendu, lan-lerro eta zereginak.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak ikastetxeak hautatzeko Praktika Batzordeak erabakitako irizpide hauei jarraituko zaie:

- Lehenetasuna Arabako ikastetxeei (Practicum I eta II).
- Lehenetasuna Ikastetxe Publikoei.
- Lehenetasuna inguru eskasean dauden ikastetxeei.
- Lehenetasuna berrikuntza proiektuak dauzkaten ikastetxeei.

Ikasleek hiru practicumak egin beharko dituzte bizpahiru zentrotan eta haien ardura da hori bermatzea. Haur Hezkuntzako ikasleek praktika egonaldia etapa honetako bi zikloetan (0-3, 3-6) egin behar dute. Halaber, Goi-mailako Graduko Lanbide Prestakuntzako Haur Hezkuntzako Goi-mailako Teknikari tituludunek PRACTICUM 3ko egonaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko dute. Lehen Hezkuntzako ikasleei dagokienez, praktika aldiak etapako 3 zikloetatik (1.-2., 3.-4., 5.-6.) 2 ezberdinetan, gutxienez, gauzatu beharko dituzte (gomendagarria bada ere 3 zikloetatik pasatzea). Practicum III egin ostean batzordeak egiaztatzen badu betekizun horiek ez direla bete, Practicum IIIa EZ DELA AURKEZTU balioetsiko da.

2.4. Ikasleek ikastetxea aukeratzea

- a. Lehen esan dugunez, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak urtero eskainiko ditu modu bateratuan praktitarako ikastetxeak, eta hala titulazio bakoitzak nahiko leku izango ditu ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko.
- b. Praktiken baimenak eta segimendu ona errazte aldera, eta ikastetxeekin ahalik eta harreman onena izateko, praktiketako egonaldia Hezkuntza eta Kirol Fakultateak hautatutako ikastetxeetan egingo da, eta hark lehenetasuna emango die Gasteiz eta Arabako eskolei.
- c. Plazak esleitu aurretik, Hezkuntza eta Kirol Fakultateak praktiketarako ikastetxeen zerrenda argitaratuko du, eta hala ikasleek zer nahiago duten pentsa dezakete.
- d. Ikasleak automatrikularen bitartez aukeratuko du plaza (aukeraketaren hurrenkera espedientearen notaren arabera egingo da)
- e. Prozesu hau amaituta, zerrenda bat argitaratuko da eta bertan egongo dira ikasleen datuak, esleitutako plaza, eta praktiketako tutoretza izango duen Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen izena.
- f. Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.

2.5. Ikasle kopurua gelako

Ikuspegi desberdinak erraztearren, erregistro desberdinak egitearren, behaketa eta analisi estilo desberdinak ezagutu eta trukatzeko, lankidetzak bultzatzeko, zereginak partitzeko, eta hori guztia memorian lankidetzak lan bezala islatzeko, Hezkuntza eta Kirol Fakultateak hau proposatzen du, Practicumen bi ikasleek izan dezatela maisu-maistra/tutore eta gela berdina. Nolanahi ere, asmo hau ikastetxe bakoitzaren interesen mende gertuko da eta hauek erabakiko dute gelako hartu nahi duten ikasle kopurua (1 edo 2). Hori horrela, ikastetxe bakoitzak zehaztuko du ikasturte bakoitzerako egindako eskaintzan aukera hori aurreikusten duen edo ez.

2.6. Tutore lana

Praktikaldian laguntza eman behar dute Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak eta praktikak egiten diren ikastetxeko maisu-maistra tutoreak.

Maisu-maistra/tutoreak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak koordinatu egin behar dute, praktiketan dagoen ikasleak dauzkan prestakuntza beharrak doitze aldera.

Ezin izango dute irakasle/tutore lanik egin ikasleekin senidetza loturaren bat dutenek.

2.7. Ikasleak

Plazak esleitzeko prozesua amaitzean, ikasleek hau egin behar dute:

- Esleitutako plazaren datuak egiaztatu.
- Ikastetxera joan Praktiketako Planak eskatzen duen ordu kopurua betez.
- Aurrez Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak ematen duen prestakuntzara eta mintegietara joan.
- Memoria indibidual bat idaztea, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak adierazitako irizpideei jarraituz.

OHARRA: Derrigorrezkoa da ikastetxera joatea, aurreko prestakuntzara eta mintegietara joatea. Justifikatu gabeko bi huts egiten badira, irakasgaia suspendituko da (egun oso batean ez joatea 2 huts izango da: goiz eta arratsalde). Justifikatutako faltak errekuperatu egin behar dira.

2.8. Parte hartzen duten eragileen betekizunak

2.8.1. Praktiketako Dekanordetza

- Practicumaren Plan Orokorra eta Urteko Plana antolatu eta planifikatzea.
- Hezkuntza Ordezkaritzarekin harremanetan sartzeara.
- Gizarte-hezkuntzako eremuetako ikastetxe, elkarte eta erakundeekin harremanetan sartzeara.
- Hauekiko harremanak bultzatzea: idazkaritza, ikastetxeko eta titulazioko koordinatzaileak, maisu-maistra tutoreak, departamentuetako zuzendariak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleak.
- Etengabe ebaluatzea Practicuma planifikatu eta praktikan jartzea.
- Eskolako Batzordeak berretsi behar duen praktika egutegia proposatzea.
- Praktikak egitean sor daitezkeen zalantzak ebaztea.
- Praktiken Batzordeko bilerak deitzea haiei jarraipena egiteko.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bakoitzari ahalik eta ikastetxe kopuru txikiena ematea, tutoretza lana errazteko.

2.8.2. Praktika Batzordea

Praktika Batzordea, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko praktika mota guztiak koordinatu eta zuzentzen dituen aholku organoa da.

Praktika Batzordea honako kideek osatuko dute: Praktiketako dekanordea, titulazio bakoitzeko koordinatzaileak, Eskolako Batzordeak hautatutako hiru irakasle, hezkuntza ordezkariak proposatutako ikastetxe lankideen hiru ordezkari, eta ikasle bat eskolan ematen den titulazio bakoitzeko.

Praktika Batzordeen Betekizun Nagusien artean daude:

- Praktika Plana:
 - Praktikak egiteko esparrua eratzea, antolatze arauak adieraztea eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleen artean ezagutarazteko ardura hartzea.
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko praktiken dokumentazio zehatza prestatzea (ikastetxeekin komunikazioa, ikasleen laneko gidak, ebaluazio protokoloak...) eta Eskolako Batzordeari onartzeko ematea.
 - Onartutako Praktika Plana zuzendu, koordinatu eta ebaluatzea.
- Hobekuntza proposamenak egitea.
- Gatazkak konpontzea:
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko praktika prozesuarekin zerikusia duten eskaera eta gorabeherak konpontzea.
 - Gatazkak konpontzea practicum planifikatu, landu eta ebaluatzean.
 - Praktika Planean sor daitezkeen gorabeherak ebaztea.
- Plazak kudeatzea:
 - Praktika ikastetxeak hautatzea.
 - Praktiketako plazak adjudikatzean aplikatutako baremoari buruz ikasleek egin ditzaketen erreklamazioei erantzutea.
- Prestakuntza:
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreei eta Ikastetxeetako koordinatzaileei zuzendutako prestakuntza ikastaroak sustatzea.

2.8.3. Hezkuntza Ordezkaritza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak martxan jarriko du aitorpen eta pizgarri sistema, irakasleak sar daitezzen ikastetxeko koordinatzaile eta ikastetxeko maisu-maistra tutore lanetara. Gainera, ikasleak ikastetxeetan egotea bermatuko duten plazak segurtatuko ditu.

2.8.4. Ikastetxeko koordinatzailea

Practicumaren koordinatzailea arduratuko da bere ikastetxean praktiketan dauden ikasleen prestakuntza jardunak koordinatzeaz eta Unibertsitatearekin harremanetan egoteaz.

Onartutako ikastetxeko zuzendariak, haren ordezkari nagusi izanik, koordinatzailea eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu, eta horiek izango ditu ikasleak zuzeneko erreferentzia practicumean ikastetxe horretan. Izendapen hau egiteko, practicumeko ikasleak koordinatu edo tutoretza emateko eskaera egiten duten irakasleak hartuko dira kontuan lehenik.

Eginkizunak:

- Practicumeko ikasleei ikastetxeko egonaldia erraztea eta behar duten informazioa ematea.
- Ikastetxearen erreferente izatea Unibertsitatearekiko harremanetan eta practicumaren arduradun unibertsitarioei laguntzea alde bietan egin beharreko lana koordinatzen.
- Practicumeko ikasleen prestakuntza prozesuan maisu-maistra tutore bakoitzaren zeregina zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazio eta ordutegiak antolatzea.
- Practicumeko ikasleen maisu-maistra tutoreen bileren egutegia prestatzea.
- Practicumeko ikasleei harrera egin eta lagun egitea praktikak hasteko prozesuan.
- Practicumeko ikasleei agertzea Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, gestioa eta antolamendua, eta behar diren dokumentuak erraztea. Ikastetxe honek duen inguru soziala eta heziketakoa agertzea.
- Practicumeko ikasleak ikastetxeko bizitza instituzionalean parte hartzea erraztea: klaustroa, departamentuak, tutoretzak...

2.8.5. Ikastetxeko maisu-maistra tutorea

Ikastetxeko maisu-maistra tutorea practicumean ikasleak duen prestakuntza erreferente gertukoena izango da eta practicum horren tutoretza hartu beharko du. Gainera, hauek izango dira funtzioak:

- Practicumaren ikastetxeko koordinatzailearekin eta practicumaren unibertsitateko arduradunekin lankidetzan aritzea, erakunde bien artean egin beharreko lana koordinatzeko.
- Praktikaldian dauden ikasleak hartzea, ikasturtean zehar jartzen diren aldietan.
- Praktiketan dauden ikasleak gidatzea, eskolako talde edo unitatearen berri emanez, ikastetxeko curriculum proiektuaren berri emanez, eta taldeari edo hezkuntza unitateari eman beharreko egokitzapenaz.
- Ikasle bakoitzari lagun egin eta laguntzea practicumean zehar, egin beharreko lanetan autonomia eta erantzukizuna bultzatzea.

- Tutoretzapean duen practicumeko ikaslearen prestakuntza saio orokorrak gainbegiratzea.
- Praktiketari dagoen ikasleari lagundu eta hura adoretzea, gainerako irakasleekin koordinazioan aritzeko, eta (ahal den neurrian) familiekin harremanetan egoteko.
- Ikasleentzat prestakuntza saio espezifikoak proposatzea, haiek gauzatu behar duten Practicumaren Plan Orokorraren barruan.
- Ikaslearekin batera balioestea haren jardunaren ahulezia-indarrak, hobetzeko asmoz.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumaren ikaslearen esku jartzea, ematen zaizkion prestakuntza saioak gertatzeko.
- Azken txosten bat egitea, practicumeko ikasleen gaitasunak ebaluatzen.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari eta bere ikastetxeko koordinatzaileari komunikatzea practicumean zehar gerta daitezkeen gorabeherak.
- Practicuma hobetzeko egin daitezkeen iradokizun eta ekarpenak egitea.

2.8.6. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea

PRACTICUMaren tutorizazioak honako hau esan nahi du:

- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko enborreko ikasgai horretako ikasle-talde baten erantzukizuna hartzea eta haien irakaskuntza bere gain hartzea, egutegian ezarritako aurre formazioa eta jarraipen-mintegiak bere gain hartuta.
- PRACTICUMaren Dekanordetzak eta titulazioaren koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikaslearen praktika-ikastetxea bisitatzea.
- Ikasleak ikasgelan gauzatu beharreko irakaskuntza horretan orientatzea, teoria eta praktika erlazioa ditzan.
- Planteamendu teorikoei jarraitutasuna ematen saiatzea, ikasleak eduki horiek ikasgeletan aplikatu ahal izateko; horretarako, irakasle-tutorearekin lankidetzan estuan arituko da.
- Beharrezkoa balitz, ikasleekin bilerak egitea praktiketari zehar gerta daitezkeen arazoak eta gertaerak banaka edo taldean ebazteko.
- Ikasleei PRACTICUMaren egitaraua ematea.
- Praktiketako ikasleei arreta eta laguntza ematea, ikastetxeetan egiten duten lana gidatzea eta beharrezko orientazioak ematea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta ikasleen irakasle-tutorearekin harremana izatea.
- Ebaluazio-agiriak irakasle-tutoreei bidaltzea, eta horiek bete ostean jasotzea.
- Ikasleei praktika-memoria egitean orientatzea, hori ebaluatzea eta kalifikatzea, ezarritako orientazioen arabera.

- Praktikaldia kalifikatzea, ikasleak gauzatutako lanak, irakasle-tutore bakoitzak egindako ebaluazioa eta ikastetxeetara egindako bisitetan jasotako oharrak kontuan izanik.
- PRACTICUMa hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

2.8.7. Departamentuetako zuzendariak

Practicumaren karga banatzea aurreikusten dute Graduen irakasgai gisa, Departamenduko urteko planaren barruan.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak ikasturte bakoitzerako irakas-antolakuntza prestatu eta onartu ondoren, departamentuek practicumaren irakaslan esleitu beharko dute eta betetzen dela begiratu, honako irizpide hauen arabera:

1. Irizpide orokor gisa, urteko irakaslanari **kreditu praktikoak atxikitzean irakaslearen egonkortasuna** proposatzen da. Kreditu praktiko enbor izaerak *“zor zaien balioa”* eskatzen du, eta ez soilik betegarri izatea, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bakoitzaren kredituak osatzeko.
2. **Irakaslaneko modulu ez zatituak** esleitzea proposatzen da, kontuan izanik Akademia Antolakuntzako errektoreordetzak kontatutako 6 kredituko erreferentzia unitatea. Dagokionean, salbuespen gisa, irakaslan hori bi irakaslek gehienez eman dezakete batera.
3. **Practicum kredituen irakaslan** ez da izango **12 kreditu** baino gehiago.

2.8.8. Titulazioko koordinatzaileak

- Lankidetzarako bide egonkorak bultzatzea eta koordinatzea titulazioak eta practicumak ahalik eta koherentzia gehien izatea; eta horretarako harremanak izango dira Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreekin eta departamentuekin.
- Practicum bakoitzaren segimenduan eta ebaluazioan parte hartzea, daraman aurrerapenean sakontzeko.

2.8.9. Ikasleak

- Practicumaren fase desberdinak ezagutu eta hauetan parte hartzea (informazio bilerak, plaza banaketa, memoria entregatzea...), eta bete daitezen laguntzea.
- Aurretiko prestakuntza ikastaroan eta practicumaren segimendu mintegietan parte hartzea.
- Praktiketako ikastetxean asistentzia eta puntualtasun arauak betetzea, eta haren araudia errespetatzea.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko maisu-maistrarekin eta tutorearekin lankidetzan aritzea.
- Practicumaren egitaraua eta garapena ezagutzea.
- Hezkuntza komunitateko eragile guztiekin begirunezko harremana egitea.
- Esleitutako plazari uko egitekotan, Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman.

3. PRACTICUM I-EN HELBURUAK

Prácticum I-en xede nagusia hau da, ikasleek lehen harreman bat izan dezatela etorkizuneko profesional gisa Ikastetxe batekin, eta behatze orokor bat egin dezatela, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ikasitakoak erabiliz; gelaren aniztasunera, eskolara eta honen gizarte ingurura egokituz, eta genero tratamenduari arreta berezia emanaz. Garrantzikoa da ikasleek behatzeko eta informazioa jasotzeko teknika eta moduak ezagutzea ondoren aztertu eta interpretatzeko, eta beti jarrera baikorra agertzea eta lankidetzarako prestutasuna, taldean aritzeko eta elkar ulertzeko.

Modu xeheagoan, hauek lirateke Practicumaren helburuak:

3.1. Ikastetxea eta bere ingurua

- Maisu/maistraren lanbidea ezagutzea.
- Eskolako jarduna behatzen hastea.
- Ikastetxearen antolamendu egitura ezagutzea: Zuzendaritza taldea, batzorde pedagogikoa, koordinazio mailak...
- Ikastetxearen proiektuak ezagutzea: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua...
- Ikastetxean elkar eragiten duten zerbitzuak ezagutzea: Berritze guneak, laguntzarako baliabide tekniko eta pertsonalak...
- Ikastetxearen inguru sozio-ekonomikoa, kulturala eta linguistikoa ezagutzea.
- Ikastetxearen inguruko instalazio eta zerbitzuak eta haien erabiltze maila ezagutzea.
- Familiek ikastetxean duten inplikazio mailari buruzko informazioa jasotzea.
- Jarrera arduratsu gogotsua agertzea, pixkana parte hartuz hezkuntza jarduerak bere dituen erantzukizunetan.

3.2. Gela

- Zuzeneko behaketa teknikak duen garrantzia ezagutzea.
- Gelan informazioa jasotzeko tresnak ezagutzen hastea.
- Jasotako informazioa aztertu eta interpretatzen jakitea.
- Jasotako ezagupen teorikoak ikastetxeko eta gelako errealitatearekin harremanetan jartzea.
- Dibertsitatearen faktore desberdinak ezagutzea: generoa, kulturartekotasuna...
- Gela bateko aldagaien dinamika eta elkar eragina behatzea.
- Gela ezagutu eta hartara egokitzea, eta ikasleen ezaugarriak ezagutzen hastea.
- Talde/gela batean denbora eta espazioa nola antolatzen diren aztertzea.
- Gelan landutako estrategia metodologikoak behatu eta ezagutzea.

- Ikasleek hainbat lanetan dituzten gaitasun eta zailtasunak ezagutu eta aztertzea.

3.3. Mintegiak

- Modu antolatu koherentean aurkeztea ikastetxean egindako behaketak eta bizitako esperientziak.
- Tutorezapeko saioetan egindako elkartrukeen bidez, lankideek bizitako esperientzietako alderik esanguratsuenak aztertzea.

3.4. Memoria

- Egindako behaketa, azterketa eta hausnarketak jasotzen dituen memoria egitea.

4. GAITASUNAK

4.1. Haur hezkuntzako practicumeko gaitasunak

Haur Hezkuntzako graduak maistra eta maisu lan arautua egiteko prestatzen du ikaslea, abenduaren 27ko ECI/3854/2007 AGINDUAK dituen betekizunen arabera, hantxe jasotzen dira practicumaren bidez hartu beharreko gaitasunak:

- Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.
- Gelan elkarrekin eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza erraztuko duen gaitasun eta trebetasun sozialak ezagutu eta aplikatzea.
- Hezkuntza prozesuaren segimendua kontrolatzea eta egitea, eta bereziki, behar diren teknika eta estrategiak menperatuz irakatsi eta ikasteara.
- Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.
- Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik arituz eta hausnartuz.
- Ikastetxe batean jar daitezkeen jarduketara arloko hobekuntza proposamenetan parte hartzea.
- Elkar eragite eta komunikazio prozesuak arautzea 0-3 urteko eta 3-6 urteko ikasle taldeetan.
- Hezkuntza komunitatearekin eta gizarte inguruarekin egiteko lankidetzak motak ezagutzea.

4.1.1. Practicumaren gaitasunak, esleitzen zaion gradu eta irakasgaien

HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN ESKUMENAK		IKASTURTEA
1.	Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.	P-I
2.	Gelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behatzea bertan giro egoki bart sortzeko asmoz.	P-I
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I
4.	Gelan elkar eragite eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza erraztuko duen gaitasun eta trebetasun sozialak ezagutu eta aplikatzea.	P-II
5.	Komunikazio eta adierazpen trebetasun handiagoa lortzea gela barruan eta kanpoan bi hizkuntza ofizialetan.	P-II
6.	Hezkuntza prozesuaren segimendua kontrolatzea eta egitea, eta bereziki, behar diren teknika eta estrategiak menperatuz irakatsi eta ikastearena.	P-II
7.	Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.	P-II
8.	Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik arituz eta hausnartuz.	P-II
9.	Ikastetxe batean jar daitezkeen jarduketa arloen hobekuntza proposamenetan parte hartzea.	P-III
10.	Elkar eragite eta komunikazio prozesuak arautzea 0-3 urte eta 3-6 urte ikasle taldeetan.	P-III
11.	Hezkuntza komunitatearen eta gizarte inguruaren sektoreekin egiteko lankidetzak motak ezagutzea.	P-III
12.	Praktikatik abiatuta hausnartzea, irakaslanean indar eta ahuleziak ezagutzeko, eta eskolak eta hezkuntza sistemak dituen erronka eta mugak ezagutzeko.	P-III

4.1.2. Haur Hezkuntzako Practicum I-en gaitasunen eta bigarren mailakoen arteko harremana

HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK		IKASTURTEA	Ikasturtearen gaitasunak
1.	Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.	P-I	2.2. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.
2.	Gelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behartzea bertan giro egoki bart sortzeko asmoz.	P-I	2.1. Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta gelan eta ikastetxean behar bezalako esku-hartzea egiteko beharrezko baliabideak bereganatzea, ikasleen beharren arabera eta ikasteko zailtasunen arabera, talderatze irizpideak erabiliz. 2.2. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I	2.1. Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta gelan eta ikastetxean behar bezalako esku-hartzea egiteko beharrezko baliabideak bereganatzea, ikasleen beharren arabera eta ikasteko zailtasunen arabera, talderatze irizpideak erabiliz.

4.2. Lehen hezkuntzako practicumaren gaitasunak

Haur Hezkuntzako graduak maistra eta maisu lan arautua egiteko prestatzen du ikaslea, abenduaren 27ko ECI/3857/2007 AGINDUAK dituen betekizunen arabera, hantxe jasotzen dira practicumaren bidez hartu beharreko gaitasunak:

1. Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.
2. Gelan elkar eragite eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza erraztuko duen gaitasun eta trebetasun sozialak ezagutu eta aplikatzea.
3. Hezkuntza prozesuaren segimendua kontrolatzea eta egitea, eta bereziki, behar diren teknika eta estrategiak menperatuz irakatsi eta ikasteara.
4. Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.
5. Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik arituz eta hausnartuz.
6. Ikastetxe batean jar daitezkeen jarduketara arloen hobekuntza proposamenetan parte hartzea.
7. Elkar eragite eta komunikazio prozesuak arautzea 6-12 urteko ikasle taldeetan.
8. Hezkuntza komunitatearekin eta gizarte inguruarekin egiteko lankidetzak motak ezagutzea.

4.2.1. Practicumaren gaitasunak, esleitzen zaion gradu eta irakasgaien

LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK		IKASTURTEA
1.	Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.	P-I
2.	Gelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behartzea bertan giro egoki bat sortzeko asmoz.	P-I
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I
4.	Gelan elkar eragite eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza erraztuko duen gaitasun eta trebetasun sozialak ezagutu eta aplikatzea.	P-II
5.	Komunikazio eta adierazpen trebetasun handiagoa lortzea gela barruan eta kanpoan bi hizkuntza ofizialetan.	P-II
6.	Hezkuntza prozesuaren segimendua kontrolatzea eta egitea, eta bereziki, behar diren teknika eta estrategiak menperatuz irakatsi eta ikastearena.	P-II
7.	Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.	P-II
8.	Irakaslanean parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikatik arituz eta hausnartuz.	P-II
9.	Ikastetxe batean jar daitezkeen jarduketara arloen hobekuntza proposamenetan parte hartzea.	P-III
10.	Elkar eragite eta komunikazio prozesuak arautzea 6-12 urteko ikasle taldeetan.	P-III
11.	Hezkuntza komunitatearen eta gizarte inguruaren sektoreekin egiteko lankidetzara motak ezagutzea.	P-III
12.	Praktikatik abiatuta hausnartzea, irakaslanean indar eta ahuleziak ezagutzeko, eta eskolak eta hezkuntza sistemak dituen erronka eta mugak ezagutzeko.	P-III

4.2.2. Bigarren ikasturteko gaitasunen eta lehen hezkuntzako practicum I-en arteko lotura

LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK		IKASTURTEA	Ikasturtearen gaitasunak
1.	Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.	P-I	2.2. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.
2.	Gelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behatzea bertan giro egoki bart sortzeko asmoz.	P-I	2.1. Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta gelan eta ikastetxean behar bezalako esku-hartzea egiteko beharrezko baliabideak bereganatzea, ikasleen beharren arabera eta ikasteko zailtasunen arabera, talderatze irizpideak erabiliz. 2.2. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I	2.1. Hezkuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea eta gelan eta ikastetxean behar bezalako esku-hartzea egiteko beharrezko baliabideak bereganatzea, ikasleen beharren arabera eta ikasteko zailtasunen arabera, talderatze irizpideak erabiliz.

5. PRAKTIKA ESPERIENTZIAREN EDUKIA ETA HURA BEHATZEKO TRESNAK

5.1. Praktika esperientziaren edukia

5.1.1. Practicum I-en edukiak

1. gaia. PRAKTIKETAKO ESPERIENTZIARI HURBILPENA.

2. gaia. ESKOLA ERREALITATEA BEHATZEA.

a. Irakaslanerako behatzeak duen helburua eta erabilgarritasuna, azter daitezkeen aldagaiak.

b. Behatu eta informazioa jasotzeko teknika, mota eta moduak.

2.2.a. Ikastetxeetan eskura dauden dokumentazio iturriak.

2.2.b. Gelako irakaste-ikaste prozesuan esku hartzen duten aldagaiak behatzea.

2.2.c. Informazioa aztertu eta interpretatzea.

2.3. Aniztasuna behaketa gai: generoa, kultur aniztasuna...

3. gaia. ESKOLA ERREALITATEAREN ETA GELAKO ELKARRERAGITE PROZESUEN AZTERKETA.

3.1. Ikastetxeak inguru fisiko, sozioekonomiko eta kulturalarekin duen harremana.

3.2. Ikastetxearen eta gelaren egitura eta antolamendua.

3.3. Zuzendaritza taldea.

3.4. Batzorde pedagogikoa.

3.5. Etaparen antolamendua.

3.6. Irakasleen koordinazioa.

3.7. Ikastetxe proiektuak.

3.7.a. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua.

3.7.a. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua.

3.7.c. Ikastetxeko Curriculum Proiektua.

4. gaia. KANPOKO HEZKUNTZA ZERBITZUAK

4.1. Berritze guneak, profesional anitzeko taldeak, baliabideak eta laguntza pertsonala.

4.2. Hezkuntza administrazioa. Erreferentziako lege esparrua.

5. gaia. MEMORIA.

5.1. Memoria prestatu eta aurkezteko teknika komunikatiboak erabiltzea.

5.2. Praktika esperientziaren ezaugarriak

Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduen practicuma, curriculumaren zati bat da, eta bertan ikasleek hasierako harremana dute beren lanbide izango denarekin eta saiakera batzuk egin ditzakete beren gaitasun oinarrizko batzuk lantzeko.

Practicumean beraz, ikasleek, behar bezala lagunduta, zuzeneko esperientzia dute lanbidean sartu eta sozializatzeko. Leku ezin hobea da etorkizuneko irakaslearen lanbide garapena lantzen hasteko.

Lanbide praktiko guztiak bezala, maisu lanbidea, zalantzazkoa, arazotsua eta konplexua da: Profesionalek kudeatutako egoerarik gehienek hainbat arrazoi dute, asko dira hura mugatzen duten baldintzak eta asko egintza aukerak; era berean, egoera horiek noiz agertuko diren eta zein bilakaera izango duten ezin da aurreikusi, eta horregatik arazotsua da hura kudeatzeko erabakiak hartzea. Horregatik garrantzizkoa da ikasleak gai izatea egoera praktikoak ezagutzeko, egintza aukerak, eta balizko ondorioak; eta horretarako sentiberatasuna, bereizmen fina eta hausnarketa gaitasuna behar dira.

Maisu-maistra lana jarduera soziala da, kontestuala eta situazionala:

- **Soziala:** Jardun profesionala pertsonekin egiten da; gehienetan zenbait pertsona batera direla, horiek rol desberdinak dituztela lan egiten duten erakundeetan, eta perspektiba desberdinak kudeatu nahi den testuinguru eta egintzaz.
- **Kontestuala:** pertsona guztiek, ez profesionalek ere bai, aitortzen dute eta desberdintzen dute inguru profesional honetan eszenatoki ugari non helburu orokor samar batekin lan zehatzak egiten diren; berehala ezagutzen diren esparru edo testuinguruak dira eta horretarako daude ikasita zenbait interpretazio eta egintza eskema, egoera horrekiko esperientzia mailaren arabera prestatuta.
- **Situazionala:** testuinguru, eszenatoki edo zeregin orokor horretan egintza zehazten duten zirkunstantziak dira: Egiten ari den jardun zehatza, haren determinatzaileak eta jardun horren aurrean egileek dituzten perspektibak. Egoera eraginkortasunez kudeatzeko, une horretan presente dauden profesionalen perspektiba eta interesen elkarmenpeketasuna edo lerrokatzea behar da.

Praktikaldian dauden ikasleek egoera profesional arruntenak ezagutu behar dituzte, profesionalen egintza perspektibak ezagutu, haien esku-hartzea eta horren ondorioak aztertu, eta ahal bada, modu gidatuan esku-hartzeko aukera ematen duten testuinguruetan, eta batera aztertu maisu-maistra tutorearekin haren egintzaren ondorioak eta aukera posibleak.

5.3. Garapen profesional trebea.

Ikasleengan garatu nahi diren gaitasun profesionalak hartzeak, hasieran bada ere, aurreko ezaugarriak dauzka. Berez, edozein oinarrizko gaitasun lortzeak (ad.: pentsamendu hausnartzailea, taldeko lana, planifikatu eta esku-hartzeko gaitasuna, ebaluatzeko gaitasuna, eta abar.), inguru eta egoera praktikoetan esku hartu eta hausnartuz bakarrik lor daiteke (Donald Schön, 1987; 1992).

Ikasle unibertsitarioek beren burua eta lanbidea lantzeko, beren interpretazio eskemak eta egintzakoak aplikatu behar dituzte egoera praktikoetan eta haiek hobetuz doaz hausnarketa pertsonalaren eta/edo sozialaren bidez ziklo batetik bestera.

5.4. Esperientzia ikasketaren zikloa

Ikasle unibertsitarioak pertsona helduak dira eta praktikan duten ikaskuntza, pertsona helduen ikaskuntza da, Donald Kolb-ek (1984) deskribatutakoaren arabera, eta esperientziatik edo esperientzia-ikaskuntzatik abiatutako ikaskuntza.

Helduen ikaskuntza prozesua norberaren esperientziatik abiatzen da, ondoren esperientzia horri buruzko hausnarketa egiten du eta azkenik, praktika berria egiten du, berriro ere esperientzia iturri izango baita eta hari buruzko hausnarketa iturri. Kolb-en iritziz “Esperientziatik abiatutako ikaskuntza zikloa” da. Pertsonak, egiten dutenaz hausnartzean, perspektiba eta interpretazio desberdinak bereizten dituzte. Esperientziari buruz hausnartuz, pertsonak identifikatu egiten dituzte printzipio abstraktuak eta garatu egin dezakete teoria bat, egiten ari direna ulertu eta esplikatzeke.

Practicuma espazio bat da ikasleek testuinguru eta jarduera desberdinak izateko, bakoitza Kolb-en esperientziako ikasketa ziklo bat izanik. Practicumaren etapa osoa – iraupen zehatzekoa eta oinarritzko prozesu hauek dauzkana, *planifikazioa, praktikan jartzea eta ebaluazioa*- ere era berean uler daiteke.

Ikaslea pertsona heldua da, bere ikaskuntza pertsonal eta profesionalaren aurrean jartzen dena bere nortasun eta esperientzia kapital guztiarekin; tutoreek baliatu egin behar dute hori ondorengo garapena zabaldu eta hedatzeko.

5.5. Esperientzia ikasketaren edukia practicum I-ean

Eta zeintzuk izan behar dute Practicum I-ean ikasleen interpretazio eskema berriak eta garapen profesionalaren hastapena eraiki dezaketen eszenatoki eta inguru profesionalak?

Ikastetxeetan maisu-maistrek duten jardun profesionala hain da konplexua eta anitza, ezinezkoa baita egonaldi labur batean hartaz jabetzea. Beharrezkoa da lehenetsunak jartzea, behatzeko, esku-hartzeko eta hausnarketarako eszenatoki eta testuinguruak hautatzea, ikasleek haietat bere pentsamendu pertsonal eta profesionala eratzeko.

Esperientzia edo behaketa erreflexiboa egiteko honako eduki-eremu, gai edo eszenatokiak proposatzen dira:

5.6. Hausnarketa esperientzia haur hezkuntzan

Behaketarako materiala

Esperientziaren alderdiak	Eduki posibleak.
Haur Hezkuntzako Ikastetxearen Testuingurua	<ul style="list-style-type: none"> *Ikastetxearen kokapena; inguru fisikoa. *Eraikina eta bere harrera berotasuna: banaketa eta girotea. *Ikastetxeko zerbitzu osagarriak (garraioa, jantokia, beka, eta abar.) *Familiak eta beren etxeak: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Gertutasuna, irisgarritasuna.

	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Familia ereduak. ✓ Familiak dituzten hezkuntza eta gizarte behar eta eskakizunak. ✓ Horien aniztasun sozioekonomikoa, linguistikoa eta kulturala.
Familia eta Komunitatea	<p>*Familiakiko harremanak: topaketa motak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Topaketa informalak (umeen sarrera-irteeretan): planifikazioa eta balorazioa. ✓ Topaketa formal indibidualak (familiarekin egindako tutoretza eta elkarrizketak): planifikazioa eta balorazioa. ✓ Taldekako topaketa formalak (informazio kolektiboa familia taldeari): planifikazioa eta balorazioa. ✓ Familiako zein pertsona doazen topaketetara. Genero ikuspegia. <p>*Familiakiko harremanak: idatzizko komunikazioak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erabilitako kartel informatiboak eta komunikabideak: planifikazioa eta balorazioa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Genero bien presentzia ikastetxeko komunikazioetan: Maskulinoa generiko gisa erabiltzea (gaztelaraz), genero bikoitza (gaz.), beste aukera batzuk. <p>*Heziketa jardueran familiak parte hartzea eta lankidetzat ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Generoak azterketa parte hartze horretan. <p>*Familiakiko harremanak: komunikatzeko moduak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Konfiantza eta hurbiltasun harremanak. ✓ Informazio elkartrukea. ✓ Komunikazioan goxotasuna. ✓ Zailtasunei aurre egitea. ✓ Helmuga komunetara hurreratzea.
Ikastetxeko Proiektua	<p>*Ikastetxearen autonomia bere Proiektua definitzean.</p> <p>*Ikastetxeko Proiektuaren ardatzak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikuspegia gai hauei buruz: haurtzarora, garapena, hezkuntza, familia, gizarte eta herri ingurua, kulturarteko sozietatea,... ✓ Hezkuntzaren betekizun sozialak: familia-eskola, komunitatea-eskola ✓ Baliabideak: gizakiak, materialak, espazioak, kanpoko laguntzak... <p>*Zentroko proiektuaren aplikagarritasuna eta erabilgarritasuna.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Familiak eta irakasleen arteko solas informalak hezkuntza proiektuari buruz (haurtzarora, garapena, heziketa, eta abar). <p>*Familiak esku-hartzea ikastetxeko Proiektuan.</p> <p>*Zentroko Proiektuaren doitzeta eta eraldatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Berrikusteko mekanismoak ✓ Familiak parte-hartzea
Ikastetxeko Pertsonala	<p>*Zuzendaritza Taldea eratzea: zenbat gizon/emakume eta zein postutan.</p> <p>*Emakume eta gizon portzentajea zikloetan: 2 urteko gela, haur hezkuntzako 2. zikloa, lehen hezkuntzako 1, 2, 3. zikloa</p> <p>*Garbiketarako langileak: gizon eta emakumeen portzentajea.</p> <p>*Kontserjeak: gizon eta emakumeen portzentajea.</p>
Zikloko Taldea	<p>*Lan koordinatua, zikloaren planifikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ebaluatze metodologia eta era komunak ✓ Umeei segimendua eta behaketa egiteko sistemak ✓ Erabakiak hartzeko beste eremu bat: eguneroko egoera ez planifikatuen aurrean erabakiak hartzea eta erantzutea. <p>*Irakasleek koordinatzailearen dituen baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zereginak definitzea eta haiek tratatzeko denbora. <p>*Emakume/gizon proportzioa Zikloko Taldean:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zereginen banaketa genero estereotipoen arabera edo ez.
Eskola Eguna, Espazioak eta Materialak	<p>*Eskola eguna eta malgutasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Harrera eta despedida egiteko prozesuak, denbora ordena, jarduerak sekuentziak eta erabilitako espazioak, errutinak. ✓ Beste espazio-denbora batzuk: jolasteko patioak, jantokia, loa, eta abar. ✓ Jarduera bat-batekoak heziketarako baliatzea. ✓ Goiz eta arratsaldean tratamendu desberdindua. <p>Jarduerak sekuentziaren planifikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ordutegian oinarritua ✓ Aurretiko proposamen didaktiko batean oinarritua. <p>*Jarduerak nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde handiko jarduerak kolektiboak.

	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Erreferentzia taldeko jarduerak (gelan eta beste espazio batzuetan). ✓ Jarduerak talde txikietan: txokoak, tailerrak. ✓ Jarduera indibidualak. ✓ Jarduera egituratuak eta ez egituratuak. ✓ Jarduera handiak: urtebetetzeak, jai-ospakizunak, oporraldiak,... <p>*Eskolako espazioa haur eta helduek bizitako espazio</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Giroak sortzea: banaketa; apainketa eta materialak; dituen erabilera aukerak. ✓ Espazio desberdinak eta bere helburuak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Komunikazio, elkarreragin eta jarduera mota desberdinak bideratzen eta bultzatzen dituzte. ○ Ume horien garapen global anizkoitza bideratzen dute (“Askotariko inteligentziak”) eszenatoki horietan. <p>*Materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erabilitako material aniztasuna: <ul style="list-style-type: none"> ○ Badira materialak gelako espazio guztietarako eta esperientzia arlo guztietarako ○ Materialak estatikoak dira edo aldatuz doaz lantzen diren gaien arabera ✓ Materialak aurkeztea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Materiala umeentzako eskuragarria da ○ Ordenaturik agertzen da eta erraz ezagutzeko moduan ○ Kalitatezko material bat da ○ Ikusgarria da eta goxoa ○ Segurua da ✓ Materialak mantentzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Materialen egoera zaintzen da. ○ Kaltetutako materiala konpondu edo berritzen da. ✓ Erabiltzeko proposamenak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Materialak itxiak edo irekiak dira ○ Aske eta erraz heltzen dira materialetara ○ Nahikoa material badago hautaketa posible egiteko ○ Txokoek beren materialak daukate. ✓ Materialen jatorria: <ul style="list-style-type: none"> ○ Denda espezializatuak ○ Berrerabilitako materiala ○ Familiek emandakoa ○ Inguruko materialak <p>* Neskek eta mutilek espazioak eta materialak berdin edo desberdin erabiltzea.</p>
<p>Parte hartzaileak: Mutikoak eta neskatoak, maistra, praktiketako ikasleak, beste pertsona heldu batzuk.</p>	<p>*Parte-hartzaileak eta hauen agerlekuak identifikatzea.</p> <p>*Harremanen dimentsioa</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Inplikazioa: parte hartzaileek beren lanak beren gain zenbateraino hartzen eta egiten dituzten ✓ Kohesioa: parte hartzaileen arteko lankidetzaren harremanak ✓ Lana egitean duten atsegina: <ul style="list-style-type: none"> ○ Atsegin edo ongizatea adieraztea edo aurkakoa. ✓ Ezarritako harreman afektiboak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Segurtasun giroa ○ Gatazkak konpontzeko gaitasuna ○ Harreman sare bat ezartzeko gaitasuna ✓ Irakaslearen laguntza eta pertsonalizazioa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Parte hartzaileen arteko laguntza, inplikazioa eta bultzada ✓ Irakasle ez direnen kanpoko laguntza. <p>* Praktiketaren dauden ikasleak: euren esperientzia behatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Praktiketaren dauden ikasleen zeregina: egonaldian, aurretik eta ondoren ✓ Praktiketako maisu-maistra tutorearekin duen harremana ✓ Lehen Hezkuntzako ikasleekin duen harremana ✓ Gainerako eskola komunitatearekin harremana ✓ Espazioak eta denborak ✓ Irakaskuntzari eta irakasleen zereginari buruzko hausnarketa, praktikaldia pasa ondoren

5.7. Hausnarketa esperientzia lehen hezkuntzan

Behaketarako materiala

Esperientziaren alderdiak	Eduki posibleak.
Lehen Hezkuntzako Ikastetxearen Testuingurua	<p>*Ikastetxearen kokapena; inguru fisikoa.</p> <p>*Eraikina eta bere harrera berotasuna: banaketa eta girotzea.</p> <p>*Baliabideak: gizakiak, materialak, espazioak, kanpoko laguntzak...</p> <p>*Ikastetxeko zerbitzu osagarriak (garraioa, jantokia, bekak, eta abar.)</p> <p>*Familiak eta beren etxeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Gertutasuna, irisgarritasuna. ✓ Familia ereduak. ✓ Familiak dituzten hezkuntza eta gizarte behar eta eskakizunak. ✓ Horien aniztasun sozioekonomikoa, linguistikoa eta kulturala.
Ikastetxeko Proiektua	<p>*Ikastetxearen autonomia bere Proiektua definitzean</p> <p>*Ikastetxeko Proiektuaren ardatzak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikuspegia gai hauei buruz: haurtzarora, garapena, hezkuntza, familia, gizarte eta herri ingurua, kultura arteko sozietatea,... ✓ Hezkuntzaren betekizun sozialak: familia-eskola, komunitatea-eskola <p>*Zentroko proiektuaren aplikagarritasuna eta erabilgarritasuna.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Familiak eta irakasleen arteko solas informalak hezkuntza proiektuari buruz (haurtzarora, garapena, heziketa, eta abar). <p>*Zentroko Proiektuaren doitzea eta eraldatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Berrikusteko mekanismoak ✓ Familien parte-hartzea
Zikloko Taldea	<p>*Zentroko Curriculum Proiektuaren erabilgarritasuna</p> <p>*Lan koordinatua, zikloaren planifikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ebaluatze metodologian eta era komunak ✓ Ikasleei segimendua eta behaketa egiteko sistemak ✓ Erabakiak hartzeko beste eremu bat: eguneroko egoera ez planifikatuen aurrean erabakiak hartzea eta erantzutea. <p>*Irakasleek koordinaziorako dituen baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zereginak definitzea eta haiek tratatzeko denbora. <p>*Emakume/gizon proportzioa Zikloko Taldean:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zereginen banaketa genero estereotipoen arabera edo ez.
Eskola Eguna, Espazioak eta Materialak	<p>*Eskola eguna eta malgutasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Sarrera-irteera, klase aldaketak, joan-etorriak, denbora ordena, jarduteko sekuentziak eta erabilitako espazioak, errutinak. ✓ Beste espazio-denbora batzuk: jolas-denbora, jantokia, irteerak, txangoak. ✓ Neska eta mutikoen espazioa berdina edo bereiz erabiltzen duten: Gela, gimnasioa, patioa <p>Jarduera sekuentziaren planifikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ordutegian oinarritua. ✓ Aurretiko proposamen didaktiko batean oinarritua. ✓ Testu liburuetan oinarrituta <p>*Jarduera nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Saioa denboraren arabera antolatzea. ✓ Jarduera indibidualak. ✓ Erreferentzia taldeko jarduerak (gelan eta beste espazio batzuetan). ✓ Jarduerak talde txikietan: txokoak, jarduera kooperatiboak. ✓ Talde handiko jarduera kolektiboak. ✓ Jarduera egituratuak eta ez egituratuak: ikasleen autonomia eta sormen maila. Jarduera bat-batekoak heziketarako baliatzea. ✓ Jarduera nagusiak: aste kulturala, inauteriak, Olentzero, euskararen astea, ikasturtean zehar landutako zehar-lerroa. <p>*Eskola Espazioa, ikasle eta irakasleek biziako espazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Giroak sortzea: banaketa; apainketa eta materialak; dituen erabilera aukerak. ✓ Espazioak eta hauen zertarakoak (gela, laborategia, musika gela, gimnasioa, patioa, frontoia): <ul style="list-style-type: none"> ○ Komunikazio, elkarreragin eta jarduera mota desberdinak bideratzen eta

	<p>bultzatzen dituzte.</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikasle horien garapen global anizkoitza bideratzen dute (“Askotariko inteligentziak”) eszenatoki horietan. ○ Espazio eta denboraren arteko harremana: gelako denbora, patioko denbora; eskola denbora, eskolatik kanpoko denbora. <p>*Materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erabilitako material aniztasuna: <ul style="list-style-type: none"> ○ Materialen eta espazio desberdinen arteko harremana ○ Materialen eta area desberdinen arteko harremana ✓ Materialak mantentzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Materialen egoera zaintzen da. ○ Kaltetutako materiala konpondu edo berritzen da. ✓ Erabiltzeko proposamenak ✓ Materialen jatorria: <ul style="list-style-type: none"> ○ Denda espezializatuak ○ Berrerabilitako materiala ○ Familiek emandakoa <p>* Neska eta mutikoen espazioa berdina edo bereizirik erabiltzen duten:</p>
<p>Eskola Komunitatea</p>	<p>1) Familia</p> <p>* Topaketa motak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Topaketa informalak (sarrera-irteerak) ✓ Topaketa formal indibidualak (familiekin egindako tutoretza eta elkarrizketa indibidualak): planifikazioa eta balorazioa. ✓ Taldekako topaketa formalak (informazio kolektiboa familia taldeari): planifikazioa eta balorazioa. ✓ Heziketa jardueran familiek parte hartzea eta lankidetzaren ematea. ✓ Genero aldagaiak parte hartze horretan. <p>* Idatzizko komunikazioak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erabilitako kartel informatiboak eta komunikabideak: planifikazioa eta balorazioa. ✓ Genero berritasunaren ikastetxeko komunikazioetan: Maskulinoa generiko gisa erabiltzea (gaztelaraz), genero bikoitza (gaz.), beste aukera batzuk. <p>2) Administrazio eta zerbitzu pertsonala</p> <p>3) Irakasle taldea</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde-gelako irakasleak: espazioak eta denborak ✓ Zikloko irakasleak: espazioak eta denborak. ✓ Zuzendaritza taldea: espazioak eta denborak <p>4) Lehen Hezkuntzako tutorea</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Irakasleen zeregina ✓ Ikasleei buruzko igurikipenak ✓ Ikaskuntza beharrak ezagutzeko ✓ Taldea kudeatzeko printzipio edo arauak ✓ Aniztasunaren trataera (kulturala, generokoa, hezkuntza premia bereziak) <p>5) Lehen Hezkuntzako ikasleak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Talde-gela: botere harremanak, lidergoak, sexuen arteko harremanak, kohesioa, gatazkak konpontzeko gaitasuna, hezkuntza-premia bereziko ikasleak onartzea. ✓ Harreman desberdintasunak denbora, espazio eta materialaren arabera ✓ Harremana tutorearekin: ikasleen zeregina gelaren antolamendu sozialean eta parte hartze arautzean. ✓ Harremana irakasle espezialista eta laguntzailearekin. ✓ Gainerako hezkuntza komunitatearekin harremana <p>6) Praktikan dauden ikasleak: euren esperientzia behatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Praktikan dauden ikasleen zeregina: egonaldian, aurretik eta ondoren ✓ Praktikan dauden tutorearekin dagoen harremana ✓ Lehen Hezkuntzako ikasleekin duen harremana ✓ Gainerako eskola komunitatearekin harremana ✓ Espazioak eta denborak ✓ Irakaskuntzari eta irakasleen zereginari buruzko hausnarketa, praktikaldia pasa ondoren

5.8. Behaketarako tresnak. Erremintak eta baliabideak

Practicumaren kontzepzio hau ikasleen ikaskuntza erreflexibo esperientziazkoan oinarritua eta haien ikaskuntza heldu autonomoak eutsia, ezin da izan oinarrian estrategia edo oinarritzko metodologia bakarra. Hainbat estrategia eta baliabide erabil ditzake ikasleak bere garapen pertsonala eta profesionala lortzeko, praktikaldian zehar. Oinarritzotzat hartzen dira behaketa, egunkaria eta elkarrizketak.

5.8.1. Hausnartze behaketa.

Lanbideetan gerta ohi denez, eta arlo zientifikoan ere berdin, oso zaila da behatze objektiboa erabiltzea; eskuarki egoerak edo agerlekuak aztertzeo aurretiaz eratutako interpretazio eskemak erabiltzen dira. Azterketa unitateak eta behaketa kategoriak ezartzerakoan, hauek ikertzailearen teorien mende daude. Garrantzizkoa da abiapuntutzat zein eredu eta eskema dugun adieraztea eta zein asmorekin heltzen zaion edozein jokabide edo eszenatoki behatzeari.

Behaketak esan nahi du sentiberatzea eta arreta hartan jartzea egin behar dela, alderatzea, bereiztea, hori guztia intentzioak zuzenduta. Behatzea adimen lan bat da, ohartzeaz haratago, sentipenak jasotzeaz gain, antolatu ere egiten ditu.

Behatze prozedura hiru fasetan garatzen da:

- Egintzak identifikatzea.
- Egintzen arteko harreman sarea eraikitzea.
- Prozesu eredua eta barne egiturak interpretatzea.

Behaketa orok intentzio bat duenez gero, garrantzizkoa da hura planifikatzea. Behaketa planifikatzeak, lanbidean aritzeaz ez ezik, agerian utziko ditu gure pentsamendu eskemak, behaketa objektuekiko. Zer behatzen dugun erabaki behar dugu:

- Zein helburu lortuko dugun edo zein helburu zati, behaketa tekniken bidez.
- Helburu horien arabera, zein alderdi-eszenatoki behatu behar dugun.
- Alderdi-eszenatoki horietatik, zein elementu zehatz behagarri hartuko ditugun nagusizat.
- Elementu bakoitzetik, zein den guztiarekiko duen maila edo balioa.
- Elementuak nola neurtu, haztatu edo deskribatuko ditugun.
- Zein euskarri egokitzen den hobeto.

Halaber garrantzizkoa da jakitea behaketan jasotako informazioa erregistratzeko zein sistema dauden, eta zeintzuk diren egokienak, jartzen diren helburuekiko. Ondorengo orrietan aurkeztzen dira behatzea erregistratzeko sistema posibleak.

Hala, *egunkaria* erregistro sistema narratibo irekia da eta ez egituratua, informazio garrantzizko asko jasotzeko modua ematen duena praktikaldian behatutako eta bizitako esperientzia profesionalari buruz, eta ondoren hartaz hausnarketa egitea bideratzen duena. Era berean, ikasleei galdetegi bat ematen zaie, behaketa bideratzen duten sistema egituratu gisa.

INFORMAZIOA JASOTZEKO SISTEMAK ETA ERABILI BEHARREKO ERREGISTRO TEKNIKAK:

	KATEGORIA SISTEMAK	SISTEMA DESKRIPTIBOAK	SISTEMA NARRATIBOAK	SISTEMA TEKNOLOGIKOAK
Sistemen izaera:	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema itxiak. - a priori kategoriak dauzka. - Aldi jakin batean gertatzen diren gertaera, jokabide, prozesuen mostrak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema irekiak. - a priori kategoriak izan ditzake ala ez. - Gertaera, jokabide eta prozesuen mostrak eta egintza horien arteko harremanak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema irekiak. - a priori kategoriak ez dauzka. - Gertaera, jokabide eta prozesuen mostrak eta egintza horien arteko harremanak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema irekiak. - a priori kategoriarik ez dauka. - ez dago saiakerarik behaketa objektua irazi edo tartean ezer jartzeko.
Erregistro Metodoak:	<ul style="list-style-type: none"> . Modu berezian kode tutako jokabideak: Numero kodeak, puntuazioak eta abar. - on-line erabilera. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hitz ikur edo transkripzio bidezko erregistroa. Oro har erregistro iraunkorrek konbinatuta (audioa, bideoa) 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko erregistroa edo idatzizkoa lengoia naturalean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarrera eta jokabide guztien erregistro ez iragazia.
Erabiltzaileen helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Klase kopuru handi bat aztertzea datu normatibo orokorgarriak lortzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - deskribapen xeheak lortzea, azpiko prozesuen azalpena, printzipio orokorrak identifikatzea egoera jakinetatik abiatuta eta orokortzea eta kasuen arteko alderatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - deskribapen xeheak lortzea, azpiko prozesuen azalpena, printzipio orokorrak identifikatzea eta jokabide patrioiak egoera jakinetatik abiatuta. Kasu zehatza ulertzea eta haien arteko alderatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erregistro iraunkor bat lortzea ondoren aztertzeko. Ikerketako helburuek ezartzen dituzte erregistratu behar denari buruzko erabakiak.
Teknika edo tresna motak	<ul style="list-style-type: none"> - kategoriak, zeinuak, jokabide zerrendak, zenbatespen eskalak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa deskriptiboko sistema egituratuak. Adib.: behaketa taulak, kategorietan oinarrituta edo gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egunkariak, gertaera kritikoen erregistroa, landako oharrak 	<ul style="list-style-type: none"> - fotografiak, bideoak, kaseteak.

5.8.2. Egunkaria

Practicum I-eko *egunkari pertsonal* bat erregistro funtsezkoa da, pentsamendu pertsonal eta profesionala prestatzeko hautatu diren eszenatokiena. Eszenatoki horiek hiru aukeretan egituratuta daude, goian esaten den gisan.

Egunkarian jasotzen da egoerei buruzko garrantzizko guztia, profesionalen perspektibei buruzkoa, egintza alternatiboei buruzkoa eta hauen ondorioei buruzkoa. Esku hartzeko Practicumaren egunkariaren aberastasuna, Practicum I-ean proposatzen den edukiaren (hausnarketarako eszenatoki posibleak) harira, jaso egin dezakeela bai objektibo-deskriptiboa eta erreflexibo-pertsonala (ZABALZA: 2004). Garrantzizkoa da informazio batzea sistematikoki egitea, irakurketa diakronikoa eta egintzen bilakaera ulertzeko.

5.8.3. Portafolioa

Hezkuntzako profesionalak prestatzeko *portafolioa* erabiltzea AEBn zabaldu zen 80. hamarkadan, 70eko hezkuntza erreformaren krisia gainditzeko eta ikasleen errendimendu akademiko desegokiak sortutako ondoeza gainditzeko. Gaur egun tresna egokia da profesional hausnartzaileak prestatzeko, bizitza guztian zeharreko hezkuntza esparruan.

Portafolio hitzak dauzkan adieren artean (hots: ministerioko kartera, artxibo edo dokumentu solteen karpeta, eta abar) bat hautatuko dugu, hau da, prozesu dinamiko baten emaitza, zeinaren bidez hezkuntzako profesionalek datuak biltzen dituzten beren lanari eta hazkunde profesionalari buruz, hausnarketa arretatsu batez bildu eta erredaktatzeko, hezkuntza jarduketan zentzua ulertu ahal izateko.

Portafolioa prestatzeak ezaugarri hauek dauzka:

- Ikasle baten lanaren jakingarrien biltze sistematiko antolatuen bilduma da.
- Ikasleak autonomoki parte hartzen du lanak hautatzen, gero bere prozesu eta aurrerapenak erakusteko.
- Ikasleak bere ikaskuntzei buruz hausnartzen du eta berak dituen pentsamendu eta ikaskuntzari buruzko kontzientzia intentzionala garatzen du.
- Ikasleak ezagutzen duena eta dakiena identifikatzen du, informazioa prozesatzeko estrategiak prestatzen ditu, ikasle gisa dituen ahulezia-indarren kontzientzia du, errendimenduari buruz hausnartzen du eta bere produktibotasuna eta funtzionamendu intelektuala neurtzen du.
- Ikasleen ikaskuntza prozesuetan oinarritzen da, beste kide eta irakasleekin osatzen da. Portafolioari esker ikasketa autonomia egiten da, ikasketa independentea, auto-erregulazio gaitasuna dakar eta ikasten ikasteko gaitasuna.

Portafolioan jasotzen dira produkzio, jarduera, bizitako egoeren txosten, eta praktika prozesuan prestatutako material guztiak, azken batean, bizitako garapen pertsonal eta profesionala deskribatu eta hartaz hausnartzeko isla eta aitzakia diren lekukotza eta ebidentzia guztiak. Ebidentzia horien antolaketak ez du ordena kronologikoa segitzen, baizik eta lagungarri da bizitako garapen pertsonal eta profesionalaren prozesuaren

deskribapenari laguntzeko. Zentzu eta esanahi pertsonal handia du, eta xedea batik bat prestatzea da, eta emaitza, hausnar-gaia eta triangelatze gaia da prestakuntza ebaluazio baterako.

Egunkaria ez bezala, -honek bizitako egintza eta eszenen deskribapen narratiboak jasotzen ditu- portafolioak ikaslearen jardun praktikoa islatzen duten produkzioak jasotzen ditu.

5.8.4. Elkarrizketa

Elkarrizketaren teknika oso erabilgarria da informazio osoagoa eta pertsonalizatuagoa lortzeko, eta osagarri ona da behaketa eta beste tekniken bidez lortutako informazioarentzat. Elkarrizketari esker informazioan sakondu daiteke eta aktoreen ikuspegia aztertu.

Elkarrizketaren ezaugarri funtsezkoa hau da, galderatik haratago doa, eta galdera berriak egin daitezke informazio osoago zehatzagoa lortzeko.

Kasu batzuetan Practicum I-en ikasleak ezin izango du dokumentazioa eskuratu hainbat arrazoi medio: ez dagoelako, baimenik ematen ez dutelako... Beste batzuetan komenigarria da pertsonaren bat elkarrizketatzea, sakontasun handiagoz ikertzeko garrantzizko iruditzen zaion alderdiren bat.

6. EBALUAZIOA

6.1. Practicum I: praktikaldia balioesteko orria

MAISU/MAISTRA TUTOREA:.....

IKASTETXEA:

IKASLEA:

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ondoren esango ditugun ebaluazio irizpideak loturik daude ikasleak lortu behar dituen helburuekin. Orientabidea da. Maisu-maistra/tutoreari ebaluazioa erraztuko ahal diote.

GAITASUN TEKNIKOA (Jakitea)
Haurtzaroko nortasuna eta garapen ebolutiboa ezagutzea (0-12 urte)
Adin eta ikasle bakoitzari ondoen datorkien ikaskuntza prozesu eta estrategiak menderatzea
Gelaren antolakuntza eta adin bakoitzari egoki zaizkion taldekatze eta ikaskuntza metodologiak ezagutzea (Didaktika eta Ikaskuntza Ereduak)
Behatzeko prozedura eta teknikak ezagutzea
Ikastetxe/gelako errealitatea behatu, arretaz begiratu eta laburbiltzeko gaitasuna
Hezkuntza lanaren identitatea eta metodologia zehazten dituen dokumentu instituzional nagusiak ezagutzea (Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua), antolamendua eta funtzionamendua zehazten baitute (Antolamendu eta Betekizunen Erregelamendua)
Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntza Sistemaren antolamendua ezagutzea: Hezkuntza Sistema antolatzeko lege orokorrak eta ikastetxeetako bizitza arautzen duten Dekretuak.
Jatorrizko familia eta kultura aniztasuna ezagutzea, eta eskolaratze eta ikaskuntza behar desberdinak ezagutzea
BALIOESPEN OROKORRA:

GAITASUN METODOLOGIKOA (Egiten jakin)
Ezagupenak lan egoera zehaztetara aplikatzen jakitea
Egoera bakoitzari egoki zaizkion prozedurak erabiltzea
Behatzeko prozedura eta teknika egokiak aplikatzea
Estrategia metodologikoak eta bakarkako nahiz taldekako ikaskuntza prozesuak menderatzea
Gela bateko aldagaien dinamika eta elkar eragina behatzea
Ikasleen aniztasun faktoreak behatzea
Erakundeen antolamendu eta curriculum prozesuak behatu eta ebaluatzeke teknikak menderatzea
Ikastetxearen inguru sozioekonomiko, kultural eta linguistikoa behatu eta ebaluatzeke teknikak menderatzea
Jasotako ezagupen teorikoak ikastetxeko eta gelako errealitatearekin harremanetan

jartzea
Arazoak norberak konpontzea
Hartutako esperientziak egoera berrietan erabiltzen jakitea
Denbora antolatzea
Egokitzeko gaitasuna
Egunero informazioa jasotzea eta hausnarketarako uneak hartzea
BALIOESPEN OROKORRA:

GAITASUN PARTE-HARTZAILEA (Egoten jakin)
Eskolako dinamikan integratzea
Lankideen artean elkar aditzeko jarrera eta asmoa
Komunikatzeko jarrera eta asmoa
Lankidetzan aritzeko jarrera eta asmoa Taldera begirako jokabidea
Jardueretan parte hartzea: eskolak, mintegiak, tutoretzak, bilerak...
Lan-taldean integratzea
Berrikuntza eta/edo ikerketa proiektuetan parte hartzea
Eskura egotea
Maisu-maistra/tutorearekin lankidetzan egitea
Maisu-maistra/tutoreari ezagutzen ez duen hura galdetzea
BALIOESPEN OROKORRA:

GAITASUN PERTSONALA (Izaten jakin)
Norberaren uste sendoen arabera jokatzeko
Erantzukizunak bere gain hartzea
Autonomia
Erabakiak hartzea
Autokritika gaitasuna
Ekimena
Jakin-mina
Sormena
Asistentzia eta puntueltasuna
BALIOESPEN OROKORRA:

OHARRAK:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

KALIFIKAZIOA:

.....n, 201_ko. ren,(e)an.

Maisu-maistra/tutorearen sinadura

Praktiketako koordinatzailearen sinadura

(Ikastetxearen Zigilua)

6.2. Practicum I: praktikaldia balioesteko orria

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEKO TUTOREA:.....

IKASLEA:

ESPEZIALITATEA: MAILA: IKASTURTEA:

DEIALDI KOPURUA:

Praktiken kalifikazioa, honako datuen balioespenaren emaitza izango da:

- Maisu/tutorearen balioespena ikasleak egin duen lanari buruz: % 30.
- Praktiketako txostena: % 40.
- Mintegietan eta aurretiko prestakuntzak dirauen bitartean egindako lana: % 30.

MINTEGIAK (azken notaren % 30)
Gainbegiratze/tutoria mintegietara etortzea
Eztabaidan duen parte hartze maila
Norberaren esperientzia ekartzea
Lanean erakutsitako inplikazio maila: jarduerak, lankidetzak...
Erakutsitako ikaskuntza eta hausnarketa maila
Prestakuntza prozesuan ikaskuntza autoerregulatzea
Norberaren praktikarekiko jarrera kritikoa
Lankideen lanarekiko jarrera kritikoa eta baloratiboa
Praktiken ebaluazioa: ikastetxean eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean
Auto-ebaluazioa
BALIOESPEN OROKORRA:

AZKEN MEMORIA (azken notaren % 40)
Alderdi formalak: aurkezpena, ortografia, ordena, estiloa, espresioa, koherentzia, aipuak, aurkibidea, bibliografia...
Edukia: proposatutako ideia eta jarduerekin duen lotura
Ikastetxeari buruzko informazio eta lanarekiko fideltasuna: egoera soziala, antolamendua, proiektua...
Hausnarketa teoriko-praktikoa egiteko gaitasuna: hautaketa, planteamenduak, gaitasun kritikoa, auto-ebaluazioa...
Argudiatze maila: ondorioak, justifikazioa, egoera/ebazpena...
Norberaren ekarpena: planteamendu didaktikoak, teoria eta praktika arteko harremana, jarrera kritikoa, ideia berritzaileak...
Egunkaria: hezkuntza inguruaren, eta norberaren irakaslanaren azterketa eta hausnarketa maila...
Hobekuntza iradokizunak praktikak egin diren arlorako
Praktikei buruz norberaren balioespena ikastetxean
Praktikei buruz norberaren balioespena Hezkuntza eta Kirol Fakultatean
Norberaren praktiken auto-ebaluazio arrazoitua

Tutorepeko mintegien (eta praktiken) garapena islatzea
Memoria aurkeztu/defendatzea
BALIOESPEN OROKORRA:

MAISU EDO MAISTRA TUTOREAREN BALIOESPENA (azken notaren % 30)
Gaitasun teknikoa (Jakitea)
Gaitasun metodologikoa (Egiten jakin)
Gaitasun parte-hartzailea (Egoten jakin)
Gaitasun pertsonala (Izaten jakin)
Profesional onak izatera ailegatzeko ikaskuntzan egiten den aurrerapena ebaluatzea

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

KALIFIKAZIOA:

.....n, 201_ko. ren,(e)an.

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen sinadura

7. ANTOLAKETA

7.1. Kronograma

	EGONALDIA IKASTETXE EZ UNIBER.	ALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5 aste (astean 30 ordu)	Ikasturte hasiera (berezia, 2011-2012 ikasturterako, azaro- abendua)	Haur Hezkuntza:8 kr. Lehen Hezkuntza:9 kr.
PRACTICUM II	7 aste (astean 30 ordu)	Apiril-maiatza	Haur Hezkuntza: 12 kr. Lehen Hezkuntza: 11 kr.
PRACTICUM III	12 aste (astean 30 ordu)	Abendua, urtarrila, otsaila	Haur Hezkuntza: 18 kr. Lehen Hezkuntza: 18 kr.

7.2. Aurretiko Prestakuntza

Ikastetxean praktikaldia egin aurretik, ikasleak 8 orduko prestakuntza egin behar du. Prestakuntza honen datei buruz eta gauzatuko den erari buruz, ikasleak garaiz izango du informazioa ikasturte bakoitzaren hasieran.

*Formazio ikastarora EZ JOATEAK AMAIERAKO EMAITZAN 3 PUNTU*ko jaitziera ekarriko du. (Ez bertaratze partzialeko kasuetan, tutoreak puntu jaitziera proportzionala egingo du).

Bestalde, *jarraipenerako* mintegietara ez bertaratzeak AMAIERAKO EMAITZAN PUNTU 1eko jaitziera ekarriko du huts egite bakoitzeko.

7.3. Practicumeko kredituen banaketa

PRACTICUM I (9 kreditu)

- a. Praktiak egin aurretik prestakuntza edo mintegia: kreditu 1 (10 ordu).
- b. Egonaldia: 6 kreditu (5 aste, 6 ordu egunero, 30 ordu astean ikastetxean).
- c. Memoria prestatzea: kreditu 1.
- d. Aholkularitza “practicum” egiten den artean: kreditu 1 (5 aste, 2 ordu astean).

PRACTICUM II (11 kreditu)

- a. Praktiak egin aurretik prestakuntza edo mintegia: kreditu 1 (10 ordu).
- b. Egonaldia: 8 kreditu (7 aste, 6 ordu egunero, 30 ordu astean ikastetxean).
- c. Memoria prestatzea: kreditu 1.
- d. Aholkularitza “practicum” egiten den artean: kreditu 1 (10 ordu zazpi astetan zehar banatuta, 1h30’ ordu astean).

PRACTICUM III (18 kreditu)

- a. Praktiak egin aurretik prestakuntza edo mintegia: kreditu 1 (10 ordu).
- b. Egonaldia: 14 kreditu (12 aste, 6 ordu egunero, 30 ordu astean ikastetxean).
- c. Memoria prestatzea: kreditu 1.
- d. Aholkularitza “practicum” egiten den artean: kreditu 2 (20 ordu hamabi astetan zehar banatuta, 1h30’ ordu astean).

8. BIBLIOGRAFIA

- BALLESTÍN GONZALEZ, B. (2009). La observación participante en primaria: ¿un juego de niños? Dificultades y oportunidades de acceso a los mundos infantiles. *AIBR Revista de Antropología Iberoamericana*, 4. liburukia, 2. zk., 229-244. or.
- BOLÍVAR, A. eta DOMINGO, J. (2007). *Prácticas eficaces de enseñanza*. Madril: PPC.
- CALBÓ ANGRILL, M. (Koord.) (2009). *Guía para la evaluación de competencias en el Practicum de Maestro/a*. Bartzelona: AQU Catalunya.
- CANO, ELENA (2005). *El portafolios del profesorado universitario*. Bartzelona: Octaedro. ICE-UB.
- CASINO, A. M^a. (2007). *El practicum de la diplomatura de Magisterio en la Universidad Católica de Valencia: formación inicial*. Valentzia: Universidad Católica de Valencia San Vicente Mártir.
- COLL, C. (2002). *Observación y análisis de las prácticas de educación escolar*. Bartzelona: UOC.
- CORIAT, M., ROMERO, A. eta GUTIÉRREZ, J. (Koord.) (2003). *El practicum en la formación inicial del profesorado de Magisterio y Educación Secundaria. Avances de investigación, fundamentos y programas de formación*. Granada: Universidad de Granada.
- DE MIGUEL DIAZ, M. (Koord) (2006). *Metodología de enseñanza y aprendizaje para el desarrollo de competencias*. Madril: Alianza Editorial.
- DEL VAL, J. (2001): *Aprender en la vida y en la escuela*. Madril: Morata.
- EVERTSON, J.M. eta GREEN, J. (1998). "La observación como indagación y método". En WITTROCK, M.C. (Ed.). *La investigación de la enseñanza, II. Métodos cualitativos y de observación*. Bartzelona: Paidós MEC.
- GAVARI STARKIE, E. (Koord.) (2005). *Estrategias para la observación de la práctica educativa*. Madril: Ramón Areces.
- GAVARI STARKIE, E. (Koord.) (2007). *Estrategias para la intervención educativa. Practicum*. Madril: Ramón Areces.
- HOLLY, M.L. (1989). "Writing to grow. Keeping a personal-professional Journal". Heinemann. Porstmouth. New Hampshire
- KLENOWSKI, V. (2004) *Desarrollo del Portafolios para el aprendizaje y la evaluación*. Madril: Narcea.
- KOLB, D. (1984). *Experiential Learning: Experience as the source of learning and development*. Nueva Jersey: Prentice Hall.
- LYONS, N. (1999) (bil.). *El uso de los Portafolios. Propuesta para un nuevo profesionalismo docente*. New York: Columbia University.
- MARTINEZ, C. (Koord.) (2004). *Técnicas e instrumentos de recogida y análisis de datos*. Madril: UNED.
- MERRIAN, L. eta CAFFARELLA, M. (1991). *Learning in Adulthood: a comprehensive guide*. San Francisco: Jossey Bass.

- MOLINA, S. (1998): "Bases para un nuevo diseño de las prácticas escolares de los futuros maestros", in. *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado*. 33. zk., 161-180. or.
- MONEREO, C. (Koord.) (2000). *Ser estratégico y autónomo aprendiendo*. Bartzelona: Graó.
- PASCUAL, M^a T. (Ed.) (2007). *Practicum: orientaciones para el Plan de Prácticas de la Diplomatura de Magisterio en la Universidad de La Rioja*. Logroño: Universidad de La Rioja.
- PÉREZ GÓMEZ, A. (1997). "Socialización profesional del futuro docente en la cultura de la institución escolar. El mito de las prácticas" in *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado*. 29. zk., 125-140. or.
- PORLÁN, R. (1987). "El maestro como investigador en el aula. Investigar para conocer, conocer para enseñar". *Revista Investigación en la escuela*, 1 (63-69. or.).
- RODRÍGUEZ MARCOS, A. (2002): *Cómo innovar en el Practicum de magisterio*. Madril: UAM.
- SCHÖN, D. (1987). *Educating thereflective practitioner: Towards a new design for teaching and learning in the professions*. Londres: Josey Bass.
- SCHÖN, D. (1992). *La formación de profesionales reflexivos*. Bartzelona: Paidós.
- SHORES, E. eta GRACE, C. (2004). *El portafolios paso a paso. Infantil y Primaria*. Bartzelona: Graó.
- TRILLO, F. (2004). Competencias discentes de carácter socioprofesional. In Medina A. eta Cacheiro, M. L. (Koord.): *Jornadas universitarias sobre Competencias Socioprofesionales de las Titulaciones de Educación*. Madril: UNED. Actas en CD.
- ZABALZA, M. (2004). *Diarios en clase: un instrumento de investigación y desarrollo profesional*. Madril: Narcea.